

# Loretan

Amagoia Iban

Elkarrizketak, liburuak, iruzkinak, erreportajeak, iritzi artikuluak, hitzaldiak, gutunak... dezente irakurria eta entzuna nion, eta ez nekien ezer hartaz. Hil berritako gehigarri dokumental hemeroteka lanei esker jakin dut. Ez naiz bakarra. Lagunarekin hasi nintzenean, esaterako, haren itzalari buruz hizketan. Tintazko zirriborroa aurrean jarri, eta «zer dakusazu hemen?» galdetu niola ematen zuen. Ez zekiela zer esan, nork eta hark *normalizatu* zituen ideien enegarren ondorengo zuzena denak... Hori ere normaltzat joko luke, akaso... Ezizenaren jatorriaz aritu ginen: jauregi antigoaleko bat Jose Luis Alvarez Enparantza haurraren Antiguako etxe ondoan. Ahaztua omen dute bertakoek, Txillardegik berak ez ei zekien noiz eraitsi zuten.

Inkontzientea ni, ez dakit inoiz eraitsi ote dudan hamaika pasarte historikotan erakutsi berri zaidan gizonaren mitoa. Txilardi baten irudia datorkit burura haren itzala sumatu orduko. Eta loretan dago.

**Txilar biltzen, Leipzigeko (Alemania) landare mintegi batean. 2011-09-15.**

JAN WOITAS/EFE.

igandea@berria.info

